



ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

1. ENPRESAREN JARDUERA

1.1. Enpresaren eraketa

ARABAKO LANAK, SA (KIDE BAKARREKO SOZIETATEA) sozietatea 1998ko abenduaren 11n eratu zen.

1.2. Sozietatearen egoitza

Sozietatearen egoitzaren helbidea hau da: Probintzia plaza, z/g. Vitoria-Gasteiz (ARABA).

1.3. Jarduerak

Arabako Lanak, SA Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 816/1998 Erabakiari jarraiki sortutako sozietate publikoa da. Sozietatearen kapitala oso-osorik Foru Aldundiarena da eta, beraz, kide bakarreko sozietatea da.

Arabako Lanak, SA foru sozietate publikoa da, jarduera ekonomikoak eta foru zerbitzu deszentralizatuak kudeatzeari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauan aurreikusitakoaren babesean.

Arabako Lanak, SAK helburu du edonolako azpiegituren obra publikoak eta titulartasunekoak diren edo jarraian zehaztuko diren erakunde publikoek egindako azpiegiturak direla-eta instala edo gara daitezkeen zerbitzuak proiektatu, horien gaineko azterlanak egin, eraiki, zuzendu, mantendu eta ustiatzea, bere kabuz, hirugarrenen bidez edo emakidadun gisa, bere izenean edo honako erakunde publikoen kontura eta horiek aginduta: Arabako Foru Aldundia, Arabako tokiko erakundeak eta Arabako erakundeek eratutako partzuergoak.

Era berean, Arabako Lanak, SAK azaldutako azpiegitura eta zerbitzuei aplika dakizkiekeen edo horiengan eragin dezaketen kudeaketako sistemen eta finantzaketa formulen gaineko aholkularitza eta bilaketa lanak egiten ditu.

2. URTEKO KONTU LABURTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1 Aurkezpen oinarriak

Honekin batera doazen 2008ko ekitaldiko Urteko Kontu laburtuak 2008ko abenduaren 31 arteko kontabilitate erregistroetatik abiatuta egin dituzte administratzaileek, eta kontabilitate gaietan indarrean diren arauei jarraituz aurkezten dira, ondarearen, finantza egoeraren eta Sozietatearen emaitzen irudi zehatza erakusteko helburuarekin.

Sozietate Anonimoei buruzko Legeko 181.1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeko, administratzaileek kontuak laburtuta aurkeztuko dituzte.

2.2 Aplikatutako kontabilitate printzipioak

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Honekin batera doazen Urteko Kontu laburtuak azaroaren 16ko 1.514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako kontabilitate printzipioak aplikatuz gauzatu dira.

2.3 Informazioa erkatzea

2008ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak hasierako urteko kontutzat hartzen dira, urtarrilaren 1ean indarrean jarriko delako Kontabilitate Plan Orokorra; beraz, ez dago 2007ko ekitaldiko kopuruekiko erkaketarik.

2.4 Kontabilitateko arau berrietara igarotzearen ondoriozko alderdiak:

Ondoko 4. oharrean zehaztutako balorazio arauak 2008ko abenduaren 31n amaitutako aurtengo ekitaldiko Urteko Kontuak eta 2008ko urtarrilaren 1ean irekitzeko balantzea prestatzeko erabili dira.

Kontabilitateko arau berrietara igarotzeak, 2008ko abenduaren 31n, ez du eraginik izan enpresaren ondare garbian.

1514/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera, Sozietateak irekitzeko balantzearen ondare elementu guztiak baloratzea erabaki du, 2007ko abenduaren 31n indarrean zeuden printzipio eta arauei jarraiki, finantza tresnak salbu, arrazoizko balioaren arabera baloratzen baitira.

I. eranskinean 2007ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko Egoeraren Balantzea eta Galera eta Irabazien Kontua sartu dira.

3. EMAITZEN APLIKAZIOA

Administratzaileek 2008ko ekitaldiko emaitzak banatzeko egin duten proposamena jarraian zehazten den hau da:

Banaketa oinarria	Zenbatekoa
Ekitaldiko emaitza (galerak)	(247.280,17)
Bazkideen ekarpenak galerak konpentsatzeko	239.383,15
Banaketa oinarria, guztira	(7.897,02)
Banaketa proposamena	Zenbatekoa
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboetara	(7.897,02)
Guztira	(7.897,02)

Emaitza negatibo hauek Sozietateak dauzkan erreserbekin konpentsatuko dira. 2008ko ekitaldian ez da banatu konturako dibidendurik.

4. ERREGISTRATZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK

4.1 Ibilgetu ukiezina

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Ibilgetu ukiezineko elementuak eskuratze kostuaren edo ekoizpen kostuaren arabera baloratu dira, eta aktiboaren definizioa betetzen dute, bai eta Kontabilitate Kontzeptu Esparruan jasotako erregistroetako irizpideak edo kontabilitate aitortpena eta identifikazio irizpidea ere. Ibilgetu ukiezinarekin amortizazioak modu sistematikoan eta arrazoiz ezartzen dira, ondasunen balio bizitzaren eta hondar balioaren arabera, ondasun horiei eragin diezaiekeen zaharkitzapen tekniko edo komertziala kontuan hartzeari uko egin gabe.

Aplikazio Informatikoetako epigrafean programa informatikoak erabiltzeko eskubidea edo horien jabetza eskuratzeagatik ordaindutako zenbatekoak jaso dira, horien erabilerak ekitaldi bat baino gehiago hartzen duela aurrez ikusten bada baino ez. Gastu horien amortizazioa era linealean egingo da, gehienez ere bost urteko epean, bidezko aplikazio informatikoa erabiltzen hasten denetik.

Aplikazio informatiko horien mantentze gastuak zuzenean egiten diren ekitaldiko gastu gisa egotziko dira.

Epe bakoitza ixtean, ibilgetu ukiezinarekin elementuen balioa aztertzen da, horietakoren batean narriadura zantzurik ote dagoen zehazteko. Horretarako, aktibo horien berreskura daitekeen zenbatekoaren kalkulua egiten da, ekitaldiko emaitzen kargura erregistratzen den narriaduraren zenbatekoa zehazteko.

4.2 Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean jasotako ondasunak eskuratze kostuaren arabera baloratu dira.

Ibilgetu materialaren amortizazioak modu sistematikoan eta arrazoiz ezartzen dira, ondasunen balio bizitzaren eta hondar balioaren arabera, ondasun horiei eragin diezaiekeen zaharkitzapen tekniko edo komertziala kontuan hartzeari uko egin gabe. Epigrafe honetan jasotako ibilgetuko elementuak amortizatzeko zuzkidura kalkulatzeko erabiltzeko koefizienteak hauek dira:

- Informazio prozesuetarako ekipoak: % 25
- Altzariak: % 15

Arabako Lanak, SAK eta haren akziodun bakarrak sinatutako hitzarmen orokorrak xedatutakoarekin bat etorrita (bi aldeen arteko harremanak arautzen ditu), Sozietateari garatzeko eta egiteko agindu zaizkion azpiegiturak jabari publikotzat hartuko dira eta, ondorioz, ezingo dira haren ondaretzat hartu.

Ildo horretan, obra kontratuen esleipendunek emandako obra egiaztagirien zenbatekoa pasibotzat joko da, eta kobrantza eskubideak ordaintzeko partidaren erregistratuko dira. Era berean, sozietateak Arabako Foru Aldundiaren aurrean duen kobrantza eskubideak kontratisten esku uzteak hasiera batean kontabilizatu beharreko zorrak eta hartzekoak ordaintzea eta kobratzea dakar.

Epe bakoitza ixtean, Sozietateak ebaluatu egiten du ibilgetu materialen bat edo, hala badagokio, efektiboa ekarriko duen unitateren bat narriatuta dagoelako zantzurik ote dagoen. Hala izanez gero, Sozietateak berreskura ditzakeen zenbatekoak kalkulatu dituzte, eta egin beharreko balorazio zuzenketak egingo ditu.

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

4.3 Finantza aktiboak

Sozietateak epigrafe honetan bezeroen eta zordunen saldoak erregistratzen ditu, urtebete baino gutxiagoko kobratzeko epemugarekin. Hasieran arrazoizko balioarengatik onartzen dira, gertatutako transakzio kostuak barne; gero, amortizatutako kostuan baloratzen dira. "Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak" partidan kutxako eta bankuko eskudirua erregistratzen da.

4.4 Finantza pasiboak

Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko zor eta partidak balio nominalarekin bat datorren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira.

4.5 Mozkinen gaineko zerga

Ekitaldiko kontabilitate emaitza Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarri negatiboarekin bat dator. Zuhurtziaren irizpideari jarraiki, Sozietateak ez du kontabilizatu zerga oinarri negatiboaren kreditu fiskala.

4.6 Sarrerak eta Gastuak

Zerbitzuak emateagatiko sarrerak aitortzeko, transakzioaren emaitza fidagarritasunez baloratu beharko da, ekitaldia ixtean izan den zerbitzu ematearen ehunekoa kontuan hartuta. Horrela, zerbitzuak emateagatiko sarrerak honako baldintza guzti-guztiak betez gero baino ez dira kontabilizatzen:

- Sarreren zenbatekoa fidagarritasunez balora daiteke.
- Baliteke enpresak transakzioaren ondoriozko ekonomia irabazi edo etekinak jasotzea.
- Transakzioa egitearen maila, ekitaldia ixteko egunean, fidagarritasunez balora daiteke.
- Zerbitzua ematearen ondoriozko kostuak eta hura osotasunean eman arte gertatuko direnak fidagarritasunez balora daitezke.

Zerbitzuak ematea eragiten duen transakzioaren emaitza modu fidagarrian baloratu ezin bada, aitortutako gastuak berreskuragarritzat hartzen direnean baino ez dira sarreratzat aitortuko.

4.7. Lotura duten enpresen arteko transakzioak.

Sozietateak lotura duten sozietate batzuekin saldoak mantentzen ditu, eta zenbait transakzio egin ditu, arrazoizko balioan fakturatu diren zerbitzuak emateagatik.

5. IBILGETU UKIEZINA

Hona hemen 2008ko abenduaren 31ko xehetasunak eta ekitaldi horretan gertatutako mugimendua, eurotan emanda:

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Kontzeptua	Saldoa 08.01.01ean	Sarrerak	Irteerak	Saldoa 08.12.31n
Informatika aplikazioak	31.896,59	812,00	0,00	32.708,59
Kostua, guztira	31.896,59	812,00	0,00	32.708,59
Amortizazio metatua	-28.064,19	-2.259,60	0,00	-30.323,79
Ibilgetu immaterial garbia	3.832,40	-1.447,60	0,00	2.384,80

6. IBILGETU MATERIALA

Hona hemen 2008ko abenduaren 31ko xehetasunak eta ekitaldi horretan gertatutako mugimendua, eurotan emanda:

Kontzeptua	Saldoa 08.01.01ean	Sarrerak	Irteerak:	Saldoa 08.12.31n
Altzariak	19.026,95	825,07	0,00	19.852,02
Informazio prozesuetarako ekipoak	22.790,33	17.543,00	0,00	40.333,33
Kostua, guztira	41.817,28	18.368,07	0,00	60.185,35
Amortizazio metatua	-26.802,50	-8.324,61	0,00	-35.127,11
Ibilgetu material garbia	15.014,78	10.043,46	0,00	25.058,24

7. FINANTZA AKTIBOAK

Aktiboak kobratu beharreko mailegu eta partiden kategorian sartu dira, eta hona hemen xehetasuna:

KOB RATU BEHARREKO MAILEGU ETA PARTIDAK	Saldoa 08.12.31n
Salmentengatiko eta zerbitzuengatiko bezeroak	49.703,16
Bezeroak, Arabako Foru Aldundiaren enpresa publikoak	17.409,54
Bezeroak, Arabako Foru Aldundia	30.346,50
Bezeroak, bestelako enpresak	1.947,12
Bestelako zordunak	85.715,06
Arabako Foru Aldundia, ziurtagiriengatiko zorduna	85.715,06
Administrazio Publikoak	11.202,40
Herri Ogasuna, Sozietateen gaineko Zergagatiko zorduna (2007)	4.969,17
Herri Ogasuna, Sozietateen gaineko Zergagatiko zorduna (2008)	6.233,23
Epe laburrerako kredituak lotura duten beste alderdi batzuei	152.398,31
Epe laburrerako ezarpenak	235,36
Kobratu ez diren kontu korronteen interesak	235,36
Guztira	299.254,29

8. FINANTZA PASIBOAK

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Pasiboak ordaindu beharreko zor eta partiden kategorian sartu dira, eta hona hemen xehetasuna:

ORDAINDU BEHARREKO ZOR ETA PARTIDAK	Saldoa 08.12.31n
Kreditu erakundeekiko zorrak	1.842,94
Hornitzaileak	116.178,00
Zerbitzuak emateagatiko hartzekodunak	4.043,98
Zerga arruntengatiko eta Herri Administrazioarekiko bestelako zorreatatik pasiboak	37.375,02
Herri Ogasuna, PFEZgatiko hartzekoduna	23.418,53
Herri Ogasuna, BEZ hartzekoduna 08ko 4. lauh.	6.057,75
Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodunak	7.898,74
Bestelako pasiboak	946.401,92
Santikurutze Kanpezuko SISEUari emandakoa	447.768,90
Aguraingo SISEUari emandakoa	500.000,00
Aurrerakinak, zenbait hartzekodun	(1.366,98)
Aurretik kobratutako sarrerak	60.668,10
Guztira	1.166.509,96

9. FUNTS PROPIOAK

Sozietatearen kapitala 60.101,21 eurokoa da: klase bereko 10 akzio izendunek osatzen dute, eta bakoitzak 6.010,121 euroko balio nominala du. Sozietatearen kapitala Arabako Foru Aldundiak sinatu eta ordaindu du, % 100ean .

Erantzukizun mugatuko sozietateei buruzko martxoaren 3ko 2/95 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian (Sozietate Anonimoen gaineko Legearen testu bateratua aldatu duena) xedatutakoari jarraiki, Sozietateak Merkataritza Erregistroan izena eman du, pertsona bakarreko sozietate gisa.

Arabako Foru Aldundiak Arabako Lanak, SA sozietateari galerak konpentsatzeko 2008ko ekitaldian egindako funtsen ekarpenak honakoak izan dira:

Bazkidea	Foru Dekretua / Ezaugarriak	Egoztea
Arabako Foru Aldundia	Diputatu Nagusiaren 78/08 Foru Dekretua. Helburua: Funtzionamendu beharrak bete.	173.969,68
Arabako Foru Aldundia	Diputatu Nagusiaren 264/08 Foru Dekretua. Helburua: Funtzionamendu beharrak bete.	65.413,47
Guztira		239.383,15

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

10. SARRERAK ETA GASTUAK

2008ko ekitaldian sortutako sarrerak eta gastuek osatzen dute ekitaldiko emaitza.

10.1. Sarrerak

- Zerbitzu eskaintzak**

Arabako Lanak, SAren eta Vías de Álava, SAren arteko 2008ko martxoaren 14ko hitzarmen erabakiaren esparruan, Arabako Lanak, SAK Vitoria-Gasteiz eta Eibar arteko AP-1 autobideko - Arabako lurralde historikoko tarteko- obrak egokiro amaitzeko beharrezko aholkularitza tekniko, ekonomiko-finantzario, legal eta administratiborako zerbitzuak eman dizkio Vías de Álava, SAri; horren finantzaketa birmoldatzeko, autobidea abian jartzeko, horren kontserbatze, mantentze eta ustiapen eredia jarraitu eta kontrolatzeko eta, oro har, VÍAS DE ÁLAVA, SAK sozietatearen helburua betetzeko egin dituen lan guztietarako. Hori dela eta, Arabako Lanak, SAK hilerro aholkularitza zerbitzua emateagatiko fakturak aurkeztu dizkio Vías de Álava, SAri.

Era berean, Arabako Lanak, SAK sarrerak lortu ditu, Herrilan eta Garraio Sailak eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Sailak agindutako obra, proiektu eta azterlanak zuzentzeagatik.

Zerbitzuak emateagatiko sarrerak	Bezeroa	Sarrerak 08-12-31n
Aholkularitza tekniko, ekonomiko eta juridikoa Vías de Álava, SAri.	Vías de Álava, SA	150.000,00
Kontrolatzeko eta pisatzeko eremuen kokapenari buruzko azterlana	Arabako Foru Aldundia	17.241,38
Obra zuzendaritza, Bergantzuko Administrazio Batzarra	Arabako Foru Aldundia	33.297,41
Errepideen estetika egokitzeko azterlana	Arabako Foru Aldundia	21.551,72
Espejoko SISEUren likidazioa	Construcciones Hierro Lz. De Arbina, SA	98,21
Langraiz Okako biribilguneko obra	Urbaser, SA	4.740,90
Tokiko erakundearen obra txikiak berrikustea, 2008	Arabako Foru Aldundia	6.764,22
Eginoko pisaketa eremuaren proiektua	Arabako Foru Aldundia	6.465,52
Lapuebla de Labarcako azterlan geoteknikoa eta ezpondaren proiektua	Arabako Foru Aldundia	7.758,62

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Zaitegi-Letonako bidegurutzeko obra	Urbaser, SA	1.678,55
Guztira		249.596,53

Hala, zerbitzuak emategatiko sarreren guztizkoa 2008an **249.596,53** euro da.

- **Ustiapeneko beste sarrera batzuk: Sarrera gehigarriak eta ohiko kudeaketak eragindako bestelako sarrerak.**

Arabako Lanak, SAK Vías de Alava SAr eta Araba Uraren Agentzia, SAr fakturatu dizkie hiru sozietateok beren jarduera egin duten lokalen erabileragatik haiei egoztekoak izan diren gastuak, eta denetariko gastuetan ere ezarri ditu. Sarrera hauen zenbatekoa **8.118,65 euro** izan da.

10.2. Gastuak

- **Langile gastuak**

Langile gastuak	Langileak 08-12-31n
Lansariak, soldatak eta asimilatuak	322.271,34
Sozietate kargak:	80.690,99
Enpresaren kontura doan Gizarte Segurantza	70.905,89
Bestelako sozietate gastuak	9.785,10
Guztira	402.962,33

Ekitaldian izan den langile kopurua, batez beste, kategorien arabera	Zk.
Goi mailako zuzendariak	1
Teknikari lizentziadunak	4,29
Administrazioko langileak	1
Batez besteko langileak, guztira	6,29

2008ko ekitaldian, batez beste, 6,29 langile egon dira plantillan: 2,29 emakume (% 36,44) eta 4 gizon (% 63,56).

- **Bestelako ustiapen gastuak**

Hona gastu hauen xehetasuna:

KANPO ZERBITZUAK	2008ko gastua
Errentamenduak eta kanonak	6.214,99
Konponketak eta artapena	430,86
Profesional independenteen zerbitzuak	56.106,95

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Aseguru primak	5.102,95
Banku zerbitzuak eta antzekoak	6.284,18
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	8.217,57
Hornikuntzak	4.936,57
Bestelako zerbitzuak	38.783,76
Guztira	126.077,83

11. ERAGIKETAK LOTURA DUTEN ALDERDIEKIN

11.1 Transakzioak bazkide bakararekin

Jarraian, Arabako Foru Aldundiak Arabako Lanak, SA foru sozietate publikoari 2008ko ekitaldian egindako enkarguak azalduko dira.

- 1) Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren apirilaren 21eko 402/08 Foru Agindua: "Egokitzapen estetiko behar duten guneen inbentarioa eta, ondorioz, katalogoa ere bai, Arabako lurralde historikoko foru sareko errepideetan jarduketak egiteko."
- 2) Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 1eko 363/08 Erabakia: "Bergantzuko airetiko lineen hornidura, saneamendua, lurperaketa eta kaleen zolaketa berrizatzeko obraren zuzendaritza".
- 3) Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 15eko 492/08 Erabakia: "A-4339 errepidea Melledeseraino, Quintanilla de la Riberatik, zabaldu eta hobetzeko proiektua egitea".
- 4) Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren urriaren 13ko 985/08 Foru Agindua: "A-4202 errepideko ezpondak Lapuebla de Labarcako tartean egokitzeko eraikuntza proiektua eta aurretiko azterlan geoteknikoa idaztea".
- 5) Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren urriaren 13ko 986/08 Foru Agindua: "N-I errepidean, Arabako Eginoko gunean, ibilgailuak pisatzeko estazioa eraikitzeko proiektua idaztea".
- 6) Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren azaroaren 3ko 1.090/08 Foru Agindua: "N-1 errepidean atsedengunea eraikitzeko proiektua idaztea".
- 7) Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren azaroaren 6ko 1.112/08 Foru Agindua: "A-3600 eta A-4411 errepideen eta N-622 errepideko irteeraren arteko lotunea egokitzeko obrak".
- 8) Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren azaroaren 19ko 1.152/08 Foru Agindua: "Goiango biribilgunetik Urrunagaraino doan A-4402 errepideko bide-zorua egokitu eta berritzeko obrak".
- 9) Nekazaritza Saileko diputatuaren abenduaren 5eko 483/08 Foru Agindua: "Uribarri-Arratzuko urmaelerako iragazgaizteko alternatiben bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterlana".
- 10) Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren azaroaren 9ko 756/08 Foru Agindua: "Arabako lurralde historikoko tokiko erakundeek egindako obra txikiak berrikustea, urte bereko uztailaren 3ko 56/2008 Foru Dekretuak xedatutakoaren babesean.
- 11) Abenduaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren 895/08 Erabakia: "Aiarako Añes eta Salmanton arteko nekazaritza bideak egokitzeko lanak egitea eta eraikuntza proiektua idaztea"



ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

- 12) Abenduaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren 886/08 Erabakia: "Santikurutze Kanpezuko SISEUren egoitzaren proiektua berrikusi, hirugarrenen bidez obrak egin eta bertarako altzariak hornitzeko" obrak egiteko agindua aldatzea.
- 13) Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 23ko 907/08 Erabakia: "Arabako Foru Aldundiaren aisiarako parkeen sareko eraikuntza proiektuak idaztea, berritze eta segurtasun obrak egitea eta hornigai edo/eta zerbitzuak kontratatzea".

Arabako Foru Aldundiari 2008ko ekitaldian egin zaion faktura, guztira, 178.346,50 eurokoa izan da; 2008ko abenduaren 31n saldoa 30.346,50 eurokoa da.

Arabako Lanak, SAK, 2008ko ekitaldian egindako enkarguak direla eta, ikuskatu edo zuzendu beharreko obra, proiektu eta azterlanen bolumena honakoa da:

Zk.	2008rako lanak	Mota (*)	Lanaren zenbatekoa	2008an ikuskatu edo zuzendu beharreko obra/proiektu/azterlanak (enkarguak)
1	Egokitzapen estetikoa	A	25.000,00	25.000,00
2	Bergantzu	O	103.000,00	1.365.799,00
3	Quintanilla- Mellede	O	1.240.899,04	1.240.899,04
4	Lapuebla de Labarcako ezponda	P	30.000,00	30.000,00
5	Eginoko pisaketa estazioa	P	25.000,00	25.000,00
6	N-leko atsedengunea	P	20.000,00	20.000,00
7	Zaitegi-Letona	O	57.762,29	57.762,29
8	Goiaín-Urrunaga	O	57.049,23	57.049,23
9	Noryesteko iragazgaizpena	A	121.220,00	121.220,00
10	Toki erakundeen obra txikiak, 2008	O	7.846,50	1.241.726,90
11	Añes-Salmanton	O	227.238,20	227.238,20
12	Kanpezuko SISEU (aldaketa)	P/O	452.049,21	901.717,98
13	Aisiarako parkeak	P/O	381.999,52	381.999,52
Guztira			2.749.063,99	5.695.412,16

(*) O: Obra / P: Proiektua / A: Azterlana

2008ko ekitaldian, epe luzeko *factoring* bidez finantzatutako obrei dagokienez, ez da obra ziurtapenik eman.

Arabako Foru Aldundiak finantza erakundeekin duen saldo zorduna 44.165.404 eurokoa da; beraz, Arabako Lanak, SAK Aldundiaren aurrean obra ziurtagiriak eta horiek eraikitzeke epean sortu ziren interes tartekatua ordaintzeko eman zituen kreditu eskubideak adierazten dituen zenbatekoaren % 49,82 ordaintzea falta da.

ZIURTAGIRIAK/INTERES TARTEKATUAK, GUZTIRA, EPE LUZERAKO FACTORING BIDEZ						
Ziurtagirientzak o epea	Amurrio	Etxabarri-Ibiña	N1	Noryeste ureztaketa	A-124	Guztira
00-08	21.666.671	18.257.051	24.609.075	20.626.735	3.480.103	88.639.635
AFAREN SALDO ZORDUNA, EPE LUZERAKO FACTORING BIDEZ, 08/12/31n						



ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

31-12-08	Amurrio	Etxabarri- Ibiña	N1	Noryeste ureztaketa	A-124	Guztira
AFAren saldoa	9.511.669	9.128.526	12.420.132	11.362.584	1.742.493	44.165.404

11.2 Vías de Álava, SArekin transakzioak

Batik bat Arabako Lanak, SAK Vías de Álava, SA foru sozietate publikoari emandako aholkularitza juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa dela eta, 2008ko ekitaldian 177.616,89 euroko faktura aurkeztu du, eta 2008ko abenduaren 31n saldoa 15.646,94 eurokoa da.

12. ZERGA EGOERA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikulua ezarritakoa aplikatuz, Arabako Lanak, SAK zergaren kuota osoaren % 99ko hoberia du.

2008ko abenduaren 31n, Sozietateak enplegua sortzeagatik kenkari aplikatu gabeak ditu, 22.872,01 euro.

13. BESTELAKO INFORMAZIOA

2008an, Administrazio Kontseiluko kideei ez zaie lansaririk ordaindu beren kargua dela eta, eta ez dute saldirik kobratzeke edo ordaintzeke.

Sozietateko zuzendari-gerenteak goi zuzendaritzako kontratua du; 2008ko ekitaldian bere lansaria 78.334,34 eurokoa izan da.

Arabako Lanak, SAren administratzaileek ez dute partaidetzarik eta, jarraian azaltzen dena salbuetsita, ez daukate kargurik eta ez dute eginkizunik betetzen Sozietatearen xede sozial berbera edo horren antzekoa edo osagarria daukaten enpresetan. Hala ere, Administrazio Kontseiluko kide batzuek zuzendaritza karguak edo kudeaketarekin loturiko karguak daukate beste sozietate publiko batzuetan edo erakunde publikoek zuzenean edo zeharka parte hartzen duten sozietateetan (ikus II. eranskina).

Kargu eta eginkizun horiek ez diete kalterik egiten arduraz eta leialtasunez jokatzeko dituzten eginbeharrei eta ez dute sortzen balizko interes gatazkarik uztailearen 17ko 26/2003 Legearen testuinguruan. Lege horren bitartez, aldatu egin dira uztailearen 28ko 24/1988 Legea, Balio Merkatuarena, eta abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sozietate Anonimoen Legearen testu bateratua.

Beste alde batetik, 2008. urtean Arabako Lanak SAK ez dio KLZ Auditores SL enpresari lansaririk ordaindu, Arabako Foru Aldundiak kontratatu baititu auditoretza zerbitzuak. 2008ko ekitaldian auditoretza-zerbitzuak emateagatik sortutako kopuru estimatua 3.465,00 euro izan da.

14. INGURUMEN ARLOAN EGINDAKO JARDUERAK

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Arabako Foru Aldundiak kontuan hartu du ingurumenaren eragina esleitutako obrak kontratatzeke orduan. Hori eraikitze proiektuetako aurrekontuetan aurrez ikusitako partida ekonomikoen bidez egiten ari da, eta, jakina, lana gauzatzeko orduan, kontrol zorrotza ezartzen da.



ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

II. ERANSKINA

Administratzailea: Luís Zarrabeitia Villanueva

Arabako Lanak SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluaren burua

Administratzailea deneko sozietateak:

- Vías de Álava, SA
- Araba Garapen Agentzia, SA
- CTV Gasteizko Garraio Zentroa, SA

Partaidetza: % 0

Administratzailea: Emilio de Francisco Ugartondo

Arabako Lanak SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.

Administratzailea deneko sozietateak:

- Vías de Álava, SA

Partaidetza: % 0

Administratzailea: Eduardo Bringas González

Arabako Lanak SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.

Administratzailea deneko sozietateak:

- Arabako Kalkulu Gunea SA
- Araba Uraren Agentzia, SA
- Naturgolf, SA
- Hazibide, SA

Partaidetza: % 0

Administratzailea: Iñaki Nafarrate Kortabarría

Arabako Lanak SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.

Administratzailea deneko sozietateak:

- Arabarri, SA
- Araba Uraren Agentzia, SA

Partaidetza: % 0

Administratzailea: Juan José Yárritu Ruiz de Gordejuela

Arabako Lanak SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.

Administratzailea deneko sozietateak:

- Arabako Kalkulu Gunea SA
- Araba Uraren Agentzia, SA
- Naturgolf, SA

Partaidetza: % 0

Administratzailea: Jesús M^a Elorza Fernández

Arabako Lanak SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.

Administratzailea deneko sozietateak:

- Araba Uraren Agentzia, SA

Partaidetza: % 0

ARABAKO LANAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontu laburtuen txostena

2008ko abenduaren 31

Arabako Lanak, SAren administratzaileek, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bateginekoko 171. artikuluari eta Merkataritza Erregistroaren Arautegiko 330. artikuluari jarraiki, eta, adostasunaren adierazgarri, 2009ko martxoaren 30ean, Vitoria-Gasteizen sinatu dituzte honekin batera doazen urteko kontu laburtuak. Horietan sartzen dira Egoera Balantze Laburtua, Galera eta Irabazien Kontu Laburtua, Aldaketen Egoera Ondare Garbian eta Memoria Laburtua (1 - 14 bitarteko oharrak), 1 - 14 bitarteko orrialdeetan idatziak.

Sin.: : Luís Zarrabeitia Villanueva
Presidente

Sin.: Emilio de Francisco Ugartondo
Idazkaria

Sin.: : Eduardo Bringas González
Bokala

Sin.: Iñaki Nafarrate Kortabarría
Bokala

Sin.: Juan José Yárritu Ruiz de Gordejuela
Bokala

Sin.: : Jesús M^a Elorza Fernández
Bokala